

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Eguraldi bero eta lehorrak bizkortu egin du laborantza ureztatuen heltzea eta, aldiz, atzeratu egin ditu lehorreko lur-lantzeak

*Abuztuaren 19tik 26ra batezbesteko historikoa baino tenperatura altuagoak eta euri gutxi erregistratu ziren*

Martes, 30 de agosto de 2011

Abuztuaren 19tik 26ra bitarteko aldiari egun eguzkitsuak, sargoria eta garaiak berezko dituenak baino tenperatura altuagoak nagusitu ziren; hala ere, azken bi egunetan gure lurraldetik igarotako fronte hotz batek termometroak jaitsi eta euri pixka bat utzi zuen.

Bero handiak tenperatura maximoen batezbestekoa, 30°C, gainditu zuen behatoki gehienetan; izan ere, egun batzuetan tenperaturak 35° eta 40° artekoak izatera iritsi ziren. Maximoen eta minimoen arteko batezbestekoak 23° eta 27°C-ren artean egon ziren, hau da, garaiari dagokiona baino 3° edo 4° C gehiago.

Azken asteetan erregistratu diren tenperatura altuek eta euririk ez egiteak udako laborantza ureztatuak lehenago heltzea eragin dute eta, ondorioz, uzta biltzeko lanak areagotu egin dira. Horrekin batera, udazken-neguko laborantzetako ereintzek eta landaketek bero hau aprobetxatzen dute, ureztapen egokiekin sinergian, laborea ondo ezartzea lortzeko.

Alderantziz, lehorreko laborantzak (ekilorea, bazka-artoa, beranduko patata, belardiak eta larreak) baldintza klimatiko hauekin sufritzen ari dira eta lurraren lehortasunak atzeratu egin ditu hurrengo ereintza-geruza prestatzeko lanak atzeratu ditu, sasoi hobetuen zain.